

Altza-Herrera

Herri Champions-a

Joan den larunbatean hasi zen XXIII. Altzako Areto Futbol Txapelketa. Herrera Kirol Elkarteak sortutako txapelketak urtez-urte gora egin du. Aurten 27 taldek eman dute izena.

Areto futbol txapelketa hau 80ko hamarkada hasieran egin zuten lehen aldiz. Herrera Kirol Elkarteak lagun batzuk jabetu egin ziren auzoan bazela areto futboleko jokatzeko ohitura eta, horregatik, txapelketa sortu zuten. Urteen poderioz, txapelketak gora egin du. Lehen urteetan

Oletako ikastetxean jokatzen zituzten partida guztiak eta azkenaldian, talde gehiago daudenez, Herrerako frontoian eta Altza, Bidebieta eta Monseko kiroldegian jokatzen dituzte, larunbat arratsaldeetan eta igande goizetan. Zortzi bat talde lehiatzen ziren lehendabiziko txapelketetan, eta aurten 27k eman dute izena. Bestalde, hasieran talde gehienak Altza, Herrera eta Bidebieta ingurukoak ziren, baina egun bada Antiguako eta Errenteriako talde bana ere.

Hasi berria

Aurtengo txapelketaren lehen jardunaldia joan den asteburuan jokatu zen. Urtarrila



bitartean, lehen fasea jokatzen ari da. 14 talde onenak bigarren fasera —“Altzako Liga” izena duena— igaroko dira. Gainontzeko 13 taldeek beste txapelketa bat jokatuko dute, “Altzako Kopa” izenokoa, hain zuzen ere. Bi txapelketek ekaina hasieran amaituko dira. Ohi bezala, areto futbol txapelketa honetan ez du-

te diru saririk ematen; antolatzailerik taldeei garaikur bana ematen diete. Besteak beste, gol gehien sartzen duenak eta atezain onenak ere garaikur bana jasoko dute. Iaz, Bar Monchi taldea gailendu zen; ikusi beharko zeinek hartzen dion aurten tekukoa. Bar Monchi-koek berriro irabazten ez badute, noski!

Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astearen euskaraz azpigitulaturik emango diren ondorengo filmeetarako hamarna sarrera ditugu: “Estualdi handia Txina txikian”, “Lainoa”, “Halloween” eta “Erasoa 13 barrutiko komisariari”. Bestalde, amaiera ekitaldian eskainiko duten “La casa de los 100 cadáveres” eta saritutako film laburrak ikusteko 40 sarrera ditugu.

“Pop eta Berta” eta “Sorgin bat etxean” euskaraz itzulitako filmeetarako hogeina sarrera ditugu. Haurrentzako bi pelikula hauek Kurasaalean izango dira.

Sarrerak lortzeko, azaroaren 3an, astelehena, 943467181 telefono zenbakira deitu behar da, 12.00etatik aurrera.

Oharra: Proiekzioen ordutegia, tokia eta eguna 33. orrialdean.



Joan den asteko irabazleak:

LEHIAKETA

“Barbarella”

Amelia Mangas
Jose Mari Arijia
Maite Muga
Balentina Perez
Borja Iglesias

“New Yorketik ihesi”

Miren Hernando
Ander Gortazar
Peio Sarasola
Francisca Seca
Gorka Muga

“Bizirik daude”

Francis Gil de Muro
Laura Ekarte
Josu Errasti
Nuria Ibarluzea
Maider Etxeberria

“Herkules eta Lidiako erregina”

Iñaki Alustiza
Ana Morales
Teo Lukas
Iñigo Fernandez Illarregi
Mikel Aranburu